

Plazak aldarriz betetzeko deia egin du Hamaika Gara ekimenak

Mezuak kartoietan idatzi eta igandean plazara eramateko eskatu dute; Jone Amonarriz Gure Eskuko kideak dio osasun krisiak ukitu dituen alorretako aldarrak ikusi nahi dituztela //2

Herrietako festek baldintzatuta, etorkizun zaila dute aizkolariek

Jon Irazu aizkolari zizurkildarrak azaldu duenez, ezjakintasuna da nagusi aizkolarien artean; «herri kirolak gure kulturaren parte dira, baina, kultura hori galtzen ari da», esan du //7

«Euskaratik urrun dagoena zergatik hurbildu den aplikaziora aztertu nahi dut»

ANTTON CUADRADO
EUSKARA TEKNIKARIA
Sare sozialen bidez galdetegi bat zabaldu du 'Egunean Behin' aplikazioari buruz //3

**Jolasak,
erronkak
eta tailerrak
zabaldu ditu
Gaztezulok**

'Etiketika kalera' izeneko egitasmoa jarri du martxan, haur, gaitasun nahiz helduentzat; Ibarrako kaleetan zabaldu dute, QR kodeen bitartez //6




ZIZURKIL

LAGUNTZA SAREA

Zizurkilgo Udalak esku orriak banatuko ditu, herrian dauden laguntza eta baliabideen berri emateko; 50 herritarrez osatutako boluntario taldea ari da //5

JONIRANDA



ORIA  **BEILATOKIA**
TANATORIO

Usabal Ind., 12. 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Igandean plazak aldarriz betetzera deitu du Hamaika Gara dinamikak

Herritarrei eskatu diete mezuak kartoi batean idatzi eta plazara eramateko; eskualdean herri batzuetan egingo da. Gerora, erreferendumaren sinadura bilketari ekingo diote.

Josu Artutxa Dorronsoro

Azken urtean zehar, burujabetza eta erabakitze eskubidea sustatuko dituen elkarlanerako espazio berri bat artikulatzen ari da Gure Esku dinamika, gizarte-ko alor askotako 23 eragilerekin batera. Harreman horiei esker, Hamaika Gara ekimena abiatu zuen martxoaren 11n, etorkizun politikoa erabakitze erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko. Fase berri baten hasiera zela iragarri zuten. Baina aurkeztu eta egun gutxira, osasun krisiak baldintzatu zuen egitasmoa: sinadura bilketa aldi batez sustatzeari utzi zioten, eta kalean egitekoak zituzten mobilizazioak udazkenara atzeratzea erabaki zuten sustatzaileek.

Orain, ordea, mobilizazio batera deitu du dinamikak, herritarren aldarrikapenak plaza publiko berreskuratzeko garaia dela uste duelako. «Premiazkoa da bizi dugun eta datorren krisiari Euskal Herritik eta guztion artean erantzun behar diogula adieraztea, eta tokiko erabaki burujabeak aldarrikatzea». Hori dela eta, Hamaika Gara ekimenarekin bat egin duten eragile sozial eta politikoei mobilizazioak deitu dituzte iganderako Euskal Herriko plazetan, *Hemen erabaki, herritarrok erabaki* lelopean.

Hain zuzen, eskatu dute herri-

EKITALDIAK ESKUALDEAN

Ekainak 7, igandea

Baliarrain. 11:00etan, herriko plazan. **Ikaztegieta.** Plazan. 12:30ean, eskuragarri izango dira kartelak egiteko euskarriak. Norberak etxetik eramane beharko ditu margoak eta maskara. 13:00etan, argazkia.

Lizartza. 11:00etan, Txirrita enparantzan.

Tolosa. Euskal Herri plazan (11:00).

Villabona. Berdura plazan (12:00).


tarrek euren aldarriak kartoi batean idazteko, eta 11:00etarako, plazara eraman eta lurrean uzteko. Egoerara egokitutako formatu honekin eta hartuko diren beharrezko neurri guztiekin, «parte-hartzaileen osasuna eta segurtasuna zorroztasunez bermatuko direla» ziurtatu dute.

Gainera, iragarri dute mobilizazio horren ondoren pixkana erreferendumaren aldeko sinadura bilketari ekingo diotela berriro, eta udazkenetik aurrera kanpaina indartzeko asmoa erakutsi dute.

ONARRI BERRIAK IRUDIKATZEN

Dinamika, baina, ez da eskuak gurutzatuta geratu, eta solasaldi digitalak antolatu ditu itxialdian zehar, *Gelditu. Hausnartu. Erabaki* izenpean, hausnarketa erdigunean jarritz. «Mundua nola aldatuko den elkarri galdetzen arituz gero, zer gertatuko den zain geldituz gero, iraganaren antz handiegia izango duen tesuinguru berri batera igarotzeko arriskua handia da», diote.

Maiatzak 14az geroztik, bost solasaldi antolatu dituzte, eta haietako bakoitzean bina hizlari egon dira. Tartean, Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko Lehendakari eta soziolinguista tolosarrak hartu zuen parte, Mertxe Mugika AEK-ko koordinatzaile ohiarekin batera, euskararen egoerari buruz aritzeko. «Inflexio-puntu honetatik etorkizunera begiratu eta eraiki nahi ditugun oinarri berriak irudikatzen hasteko saioak» izan direla diote antolatzaileek.



Hamaika Gara dinamikak igandeko dinamika iragartzeko diseinatutako karteletako irudia. JONE AMONARRIZ

«Osasun krisiak ukitu dituen alor guztietako aldarriak ikusi nahi ditugu plazetan»

JONE AMONARRIZ ZUBELDIA
GURE ESKU DINAMIKAKO
KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Osasun krisiak Gure Eskuri «erabat» eragin diola dio Jone Amonarriz tolosarrak, «bai sozialki, baina batez ere, ekonomikoki». Barne-hausnarketa bat egiteko tartea hartu ondoren, aurrera eramango diren dinamiketan parte hartzeko deia luzatzen du. **Zergatik erabaki duzue herriko plazak aldarriz betetzea?** Hilabeteak dira, sakoneko lanke bat egiten hasi ginela, epe luzeago begiradarekin. Itxialdia pixkana arintzen joan den heinean, ikusi dugu bazegoela behar bat krisi honi nahiz datorkigun krisi sozio-ekonomikoari herri bezala erantzuteko. Horrelako egoeretan, hemen hartu behar ditugu erabakiak, herritarren hitzak aintzat hartuta. Aste haue-

tan, ikusi dugu erabakiak non eta nola hartzen diren, eta horren inguruko hausnarketa bat egin beharrean gaude.

Zer egingo duzue igandean?

Gure aldarrikapenak plazak berreskuratzen dituztela irudikatu nahi dugu. Hori bai, ezinbestekoa zen egungo egoera eta tesuingurura egokitzea. Norberak bere etxean prestatu beharko du bere aldarria, kartoi zati batean. Ondoren, plazara eraman eta bertan elkartuko ditugu guztiak, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

Nolako mezuak bilduko dira?

Oso desberdinak espero ditugu; aniztasun hori ere islatu nahi dugu. Osasun krisiak ukitu dituen alor guztietako aldarriak eraman nahi ditugu plazara. Bizirik zeuden aldarri eta borroka berretsi dituzte krisi honek; lehenetik agerian zeudenak gehiago azaleratuz. Zentzu horretan, badago premia guztiak elkartu eta herri bezala erantzuteko.

Eskualdearen kasuan, bost herritan egingo dira.

Baliteke datozen egunetan ere beste herriren bat animatzea. Aiztondon, adibidez, berandua egingo dutela jakinarazi dute. **Hala ere, berez, udazkenara atzeratu ziren mobilizazioak.** Hala da bai. Mobilizazio hau ez

genuen aurreikusia. Egia da, maiatza eta ekainerako bazirela beste batzuk. Hortaz, igandekoa trantsizio moduko bat izango da, gero abiatuko diren egitasmoei begira. Mobilizazio honetan, gai horiek guztiak azaleratuko dira, eta gero, gai horiek guztiek bat egiten duten manifestuaren sinadura bilketa abiatuko dugu.

Sinadura bilketari begira, herritarrek animatzeko egun garantzitsua izango da, ezta?

Abiapuntu bat izango da. Martxoaren 11n ekin genion sinadurari, eta oraindik ere zabalik dago horretarako aukera. Bizitza duinak erdigunean jartzeko du ardatz, baita etorkizun justuago bat bermatzeko tresnen beharra ere. Egundak, aldaketaz eta aukeraz ari gara hitz egiten; hala ere, herritarrok sortu behar ditugu horiek. Orain, gainera, inoiz baino arrazoi gehiago ditugu aktibatu eta mugitzeko.

Zer moduz joan dira itxialdiko solasaldi digitalak?

Balorazio oso positiboa egiten dugu saioen inguruan. Alor askotako hizlari oso indartsuak izan ditugu. Hausnarketak entzuteko eta partekatze eragin korrak izan dira, baita komunean ditugun gaiak, balioak eta behar azaleratzeko ere.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Garbiketa. Tolosako Garbiketa enpresa batek, gizonezko bat behar du garbiketalaran jarduteko. Ezinbesteko baldintzak: gidabaimena izatea eta esperientzia izatea. Intereza dutenek: 943 670 626.

Ostalaritza. Zerbitzaria behar da, asteburuetan jantetxe batean lan egiteko. 605 72 77 30.

Zaintza. Adineko pertsona bat jardunaldi partzialan zaintzeko pertsona euskalduna behar da Tolosan edota Berastegin. Zaintzarako gutxieneko prestakuntza edota eskarmentua beharko litzateke. 635707685.

«Euskara maila baxuagoa dutenengan zein eragin duen aztertu nahi dut»

ANTTON CUADRADO IRAOLA EUSKARA TEKNIKARIA

Hiznet Plangintza Graduondokoa egiten ari da Antton Cuadrado, eta sare sozialen bidez galdetegi bat zabaldu du 'Egunean Behin' aplikazioak euskararen erabileran duen eragina aztertu ahal izateko

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Nahiz eta Geografian lizentziatua izan, euskarak beti izan du tokia Antton Cuadrado Iraolaren bizitzan (Alegia, 1987). Pasaiaiko udaletxeko euskara sailean egiten du lan. Bere lanean sakondu nahi du graduondokoarekin.

Euskal Herriko Unibertsitateko Hiznet Plangintza Graduondorako ikerketa egiten ari zara. Zer nolako graduondoa da?

Ikasturte bateko iraupena du. Hizkuntza plangintzari buruzko ikasgaiak dira. Teoria orokorrak edo horiei buruz egin diren ikerketen teoriak ikasten dira. Hizkuntza plangintza lan munduan, administrazioan edo ziurtagirien eragin eremu horretan; hainbat aplikazio praktiko ere ikasten dira.

'Egunean Behin' aplikazioa aukeratu duzu euskararen erabileran duen eragina aztertu nahian. Zergatik?

Iruditzen zait gaur egun Internetek indar handia duela. Esan dezakegu, adibidez, euskararen normalizazioan hezkuntza izan daitekeela eremu handi bat, lan eremua izan daiteke eragiteko beste gai potolo bat, baina aisialdia, Internet, sare sozialak eta aplikazioak indar handia hartzen ari direla iruditzen zait, eta gero eta indar handiagoa gainera. Hor ere eragiteko beharra ikusten nuen. Gainera ni zalea

naiz, eta asko gustatzen zaizkit *Egunean Behin* moduko aplikazioak, eta baita telebistako galdera programa horiek ere. Horiek biak uztartzen zituen gaia iruditzen zitzaidan aplikazio hau, arrakasta handiko aplikazioa, eta horri eustea erabaki nuen.

Jende asko mugitzen du.

Bai. Egia esan arrakasta handia izan du. Urtebeteko ibilbidea duen aplikazioa da, eta 100.000 pertsonatik gora dira erabiltzaileak. Euskarazko aplikazio baten tentat kopuru handia da.

Galdetegi bat prestatu duzu zure ikerketarako.

Hori da. Erabiltzaileek zein iritzi duten jakin nahi dut, zein erabiltzaile mota den eta *Egunean Behin* nora iristen den jakin nahi dut. Nire inguruko jendearen artean zabaldu dut *whatsapp* bidez, eta zabaltzeko eskatu diet. Facebook eta Twitterren ere zabaldu dut, euskaldun tipologia edo zein motako jendearengana iristen den ikertu nahi dudalako.

Zein motako galderak dira?

Galdera orokorren artean, adina, nongoa den eta ikasten edota lanean ari den daude. Gero zein euskara maila duen, zenbat erabiltzen duen egunerokoan, zenbat taldetan jolasten duen *Egunean Behin* aplikazioan, euskararen erabileran zenbateko eragina duen uste duen, edota zer gustatzen zaion eta zer hobetuko lukeen.

Galdetegi laburra da.

Bost minutu ere ez dira behar betetzeko. Hamabost bat galdegai dira.

Erantzun ona ari da izaten?

Mila erantzunetik gora jaso ditut dagoeneko, eta ni ere harrিতuta nago. Horrek erakusten du gaur egun zein indar duten Internetek eta sareek; zenbat pertsonengana iritsi daitekeen gailu ezberdinen bitartez. Aplikazioak arrakasta duen moduan, uste dut jendeak ere gogoz hartu duela galdetegia. Motza da, eta jendea erantzuten ari da.

Noiz bukatuko da galdetegia betetzeko epea?

Aste honen bukaerarako itxi egingo dut, eta erantzunak aztertzen hasiko naiz.

Galdetegia bete nahi duenak non aurki dezake?

Nik nire sare sozialetatik zabaldu dut, baina Codesyntax enpresa da aplikazio hau sortu duena, eta beraiekin ere elkarrizketa bat izan nuen, eta beraien blogean jarria dute. *Sustatu.eus*-en aurkitu daiteke galdetegia.

Zenbat eta erantzun gehiago hobe, edota lan handiagoa da zuretzat?

Bietara. Informazio gehiago izango dut, eta emaitza nolabait osoagoa izango dut. Baina iritzi guzti horiek prozesatzen lan handiagoa izango dut.

Begiratu duzu zerbait?

Zenbatek erantzun duten begiratzera sartzen naiz, baina iri-

tziak banan-banan aztertzen ez naiz hasi oraindik.

Zer topatzea espero duzu?

Orokorrean, euskaraz jakin behar du noski, eta euskara maila altua da. Momentuz gipuzkoarrak dira gehien erantzun dutenak. Baina niri euskara maila baxuagoa duten horiengan zein eragin duen aztertzea gustatuko litzaidake, edo zertan lagundu dieten. Ea aplikazioak euskararen erabilerari hori areagotzen lagundu ote dien edo euskarara hurbiltzen... Ea benetan zein ekarpen egin duen. Euskaratik urrunago dagoen hori zergatik hurbildu den aplikazio honetara aztertu nahiko nuke.

Horiengana iritsi nahiko zen nuke?

Bai, fokua hor jarri nahiko nuke. Euskararen normalizazioan aurrera begira nola eragin beharko genukeen ikusteko. Niretzat oso garrantzitsua da erabiltzaileen iritzia jasotzea. Nola eragin duen jakiteko erabiltzaileek hitz egin behar dute.

Zure lanerako baliatu nahi duzu graduondokoa, ezta?

Pasaiaiko udaleko euskara sailean nabil lanean eta gure lana euskara indartzea da. Herrian, lan munduan, eskolan, aisialdian, Euskaraldia dela hizkuntza ohituretan eragiteko,... Hainbat alor ukitzen ditugu. Guzti horretan nik ere oinarri sendoago bat izateko ari naiz egiten graduondoko hau.

Hilaren 9an zabalduko ditu ateak Alegiako Gizarte Zerbitzuak

E. Maiz Alegia

Alegiako Udaleko Gizarte Zerbitzuek asteartean, hilaren 9an, berreskuratuko dute jendaurreko arreta zerbitzua. Aurrez, ordea, beharrezkoa izango da hitzordua hartzea 943 65 47 68 telefono zenbakira deituta. Hala eta guztiz ere, eta ahal den neurrian, harreman telematikoa lehenetsi eta sustatu nahi dute Alegiako Udaletik, «ezinbestekoa» den kasuetan kenduta.

Jende pilaketak ekidin nahi ditu udalak, eta bere esku dau den segurtasun eta higiene neurri guztiak hartuko ditu. Sarrean itxaron beharko da gizarte langileek deitu arte, eta sartutakoan eskuak gelarekin garbitu beharko dira.

Nola ez, maskara erabiltzea beharrezkoa izango da. Kanpoan jende gehiago egonez gero, segurtasun neurriak betetzea eskatzen dute, eta Covid-19aren sintomaren bat izanez gero hitzordura ez joateko esan dute.

Edukiontzia eta ekarpen guneak berriz kontrol sistemarekin

BIDANIA-GOITATZ // Urola Erdiko Mankomunitateko zerbitzu guztiak ari dira pixkana bere onera etortzen. Hori dela eta, sarbidekontrola berriz ezarri eta itxi egingo direla edukiontzia eta ekarpen guneak adierazi dute mankomunitatetik. Asteleheneetik ohiko sistema martxan jarria dute Bidania-Goiatzen.

Bihar 19:00etan ezohiko osoko bilkura, Amezketan

AMEZKETA // Amezketako udal gobernuak, bihar, 19:00etarako deitu du ezohiko osoko bilkura. Bederatzi puntuko gai ordena izango dute jorratzeko, eta besteak beste, Amezketako autonomo eta enpresa txikientzat Covid-19ak sortutako kalte ekonomikoak leuntzeko diru laguntzak, eta Amezketako Udaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen lankidetzak hitzarmena izango dituzte eztabaidagai.



ATARIA

Eskualdean barrena

‘Tolosaldeko Ataria’-k bizikletan zein oinez egiteko ibilbideak proposatuko ditu astero; ikasturtea bukatu bitarte asteazken eta ostegunetan argitaratuko ditu

Erredakzioa Tolosa

Izan al zara Tolosaldeko 28 herrietan? Ezagutzen al dituzu? Herri guztiak lotzeko aitzakia, motibo edo helburu desberdinak aurki daitezke: jatetxez jatetxe ibili, mendiz joan, elizak, eskulturak eta monumentuak bisita-

tu, frontoiak eta kiroldegiak erabili... Eskualdean hamaika altxor daude.

Aurtengo uda berezia izango dela ikusita eta urrutira ezingo garela joan dirudienez, oraingo honetan herriz herri mugitzeko aitzakia **TOLOSALDEKO ATARIA** izango duzu.

BIZIKLETAN ETA OINEZ

ATARIA-k asteazkenero, gaur hasi eta ikasturtea bukatu bitarte, bizikleta ibilbide bat proposatuko du Joxemi Saizarren eskutik. Eta ostegunetan oinez egiteko ibilbideak proposatuko ditu **ATARIA**-k.

Tolosaldeko herrien arteko distantziak ez dira handiak. Be-

deratzi etapa proposatuko ditu Saizarrek herri guztietara iristeko, nahiko laburrak (20-30 km) eta lasai egiteko modukoak. Lagunekin, familiarekin edo bakarrik egin daitezke. Orografia kontuan hartuta, aldapa batzuk izango dira tarteka, horrelakoe-tara etxeko txikienek ezingo

dute joan, baina gehienetan seme-alaba koskortuekin ere joan daitezke. Asteroko proposamenetan xehetasun guztiak emango ditu **ATARIA**-k.

Ibilbide guztiak ataria.eus webgunean egongo dira eskuragarri, uda honetan nahi duzue-nean egin ahal izateko.

Tolosan hasi eta bukatu

21. kilometroko ibilbidea; Tolosa-Anoeta-Villabona-Aduna-Amasa-Irura-Tolosa modu errazean egiteko moduan

Joxemi Saizar Tolosa


Lehen ibilaldia nahiko laua da eta trafiko gutxiko errepideetatik, Aduna (128 m) eta Amasako (120 m) tontorrek bakarrik ditu. Tolosako erdialdetik aterata (Trianguloa plaza hartuko dugu erreferentzia gisa), Alde Zaharra zeharkatu eta Belate auzotik barrena abiatzen gara Anoeta aldera (GI-3650 errepidea). Abraham Olano eta Anjel Mari Peñagarikanoren herrian, beste guztietan bezala, aurtengo ezingo dituzte Korputz jaiak behar bezala ospatu. Hurrengo batean izan beharko du. Errepide nagusia utzi eta Oria ibaia eta trenbidearen artean doan bidexka asfaltatua hartuko dugu, ia autoen trafikorik ez duena. Hori hartzeko bi aukera daude: Errotalde auzotik edo, herrian sartuta, Alkizarako bidea hartu eta aldapa jaitsi bezain pronto eskuinetara hartuta. Irurara joateko oinezko

zubi berria topatuko dugu laster. Oria ibaia atzera zeharkatu eta trenbide ondoko bidera itzuliko gara. Tren pasabidean kontuz ibiliko gara eta barrera jaitzita baldin bada, itxaron. Oso bide laua da, bizikletaz gozatzeko modukoa. Muino bakarra Sarobe baserrira joateko zubiaren parean dauka. Villabona parera iritsitakoan biribilgune bat dago, herrian sartzeko zubiaren parean. Eskualdeko bigarren herririk handienak bisita lasaiagoa merezi du eta beste baterako utziko dugu.

Hor ezkerreara jarraitu, Zizurkil aldera eta bidegorri berri batetik ibaiaren ezkerretatik jarraituz Zubimuraino jarraituko dugu. Han Asteasu aldera jo eta berehala beste biribilgune bat dago eta hor eskuinetara (Adunaraino eramango gaituen GI-3610 errepidea), Bulandegi aldera hartu, industria gune aldera. Zizurkilgo igoera ezkerretara utzita, segi eta berehala Adunara igotzeko seinalea agertuko da. Hor dago eta-



Amasara igotzeko eman beharko dira azken pedalkada gogorrak. J.S.



pa honetako lehen igoera. Bide berdian Santa Kruz ermita ikusiko dugu. Egunezko lehen izerdiak bota ondoren, atsedena hartzeko eta Juan Kruz Igerabide idazlea,

Paco Ibañez kantaria, Xabier Berasaluze *Leturia* pandero-jotzailea, Iñaki Gorostidi harri-jotzailea eta Mendizabal anaiak herri kirolarien jaioterria ezagu-

tzeko tartea har daiteke. Jaso-kundeko Mari (XVI. mendea), udaletxea, Torre a oinetxea (XV. mendea baino lehenagokoa), frontoia, ostatu-albergea eta kiosko modernoak ikus daitezke.

Bide beretik itzuli beharrean, Andoain aldera jaitsi daiteke, eta Asvinenea kultur zentroko bidegurutzean eskuinera hartu, industrialderantz. Bide lasai horretan esfortzu handirik gabe eragingo diegu pedalei eta igoera hasi den puntura itzuliko gara. Handik lehengo bidetik Villabonara itzuli eta Jesusen Bihotz Sakratuaren elizan ezkerre hartuko dugu, Amasara

Bizikletan egiteko lehen proposamena nahiko laua eta trafiko gutxikoa da

Azken pedalkada gogorrak Amasara igotzeko eman beharko dira

igotzeko (GI-3751). Hemen ere igoeraxoa daukagu, azken pedalkada gogorrak eta izerdiak, beraz. Tourseko San Martin eliza, frontoia eta plaza ikus daitezke bertan. Bide beretik jaitsi Villabonara eta Olaederra kiroldegien ondoko zubitik Oria ibaia zeharkatu eta etorri garen bidetik itzuliko gara Tolosara.

Oinezko zubiak aprobetxatuz, sartu Xarea praktikatzan den eta trinketea duen eskualdeko herri bakarrera, Irurara, alegia. Azken urteotan biztanlez gehien hazi dena ere bada. San Migel eliza gotikoa da eraikin nagusia. Garai bateko garbitokia mantentzen du, gainera.

Lehen txangorako, nahikoa. Ez dago gaizki!

Laguntza behar duten herritarren ondoan egon nahi dute

Zizurkilgo Udalak herrian dauden zerbitzu eta bestelako baliabideen berri emateko esku orria banatuko du ekainaren 8tik aurrera

Jon Miranda Zizurkil

Konfinamendu garaian beharrezko izan diren herritarrengana gerturatzeko lanketa egin du Zizurkilgo Udalak. Hurbiltasunari garrantzia eman nahi izan diote eta sortu ahal izan diren beharrei gertutik erantzutea eraginkorragoa dela iritzia, 24 orduz martxan egon den telefono zenbakia jarri dute herritarren eskura: 663 779 727. «Konfinamendu garaian hasi da lanean zenbaki hori, eta deskonfinamenduan ere martxan egongo da, beharrezko diren herritarren laguntza eskaerak jasotzeko», esan du Matti Navas Berdintasun zinegotziak.

Telefono zenbaki horren, eta oro har, herrian eratuta dagoen laguntza sarearen berri emateko esku orri bat prestatu du Zizurkilgo Udalak eta datorren ekainaren 8tik aurrera banatuko du herritarren artean. Ainhoa Larrea teknikariak azaldu duenez, Herrigunean etxeko postontzietan utziko dute ale bana, eta Elbarrenan atari bakoitzean jarriko dituzte kartelak. Herriko saltokietan ere eskuratu ahal izango dira esku orriak.

Navasen esanetan euskarri hauen bitartez zizurkildarrei erakutsi nahi diete, herrian badagoela sare indartsu bat, herritarrek asko mugitu direla konfinamendu garaian eta talde asko ari direla modu antolatuan lanean. Besteak beste, emakume elkarteak aipatu ditu Navasek: «Esate baterako, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak. Garbi dago gertatzen ari dela. Nola detektatu

ordea? Ez da lan erraza, baina esku orriarekin etxeko atariraino iristen bagara, hor dago telefono zenbakia. Garbi dago ez garela beharra duten guztiengana iritsiko, baina baten batengana iristen bagara, hori behintzat emandako aurrera pausoa da». Komunitate oso bat irudikatu nahi izan du udalak kanpaina honekin. «Beharra dutenei ez diegu telefono bat bakarrik eskaini nahi. Esan nahi diegu, komunitate horretan badaudela beretzako egokiak izan daitezkeen taldeak, beren dinamika propioarekin».

Osasun larrialdian zehar 50 boluntario inguruk eman dute izena Zizurkilgo taldean. Horrek ez du esan nahi laguntza eman dutenen multzoa lagun horietara mugatu denik. «Udaletik 70 urtetik gorakoei zerbait behar ote zuten galdezka deitu zaienean, haiek esan digute bizilagunekin edo ingurukoekin moldatzen zirela. Laguntza sare horiek, neurri batean, espontaneoki sortu dira», aipatu du Navasek.

COVID-19aren aurrean nola jokatu arautzeko udalak protokoloa onartu zuenean oso presente zuen zaintzaren gaia. Larreak azaldu duenez, zaintza komunitarioa nola eskaini aztertu zuten hasiera batean, nahiz eta beharrik ez den egon herrian. «Edo agian beharra egon da, baina ohitura falta dugu zaintza konpartitu bat martxan jartzeko. Ez dakiugu etorkizuna nola etorriko den, baina akaso garaia da gai hauen inguruan pentsatzeko». Egundotan banatuko den esku orriak ere gogoeta hori bultzatu nahi du.



Ezkerretik eskuinera, Larrea teknikaria, Navas Berdintasun zinegotzia eta Amenabar alkateordea. J.M.



«Gure herria den aldetik zer gutxiago ahal dugun neurrian laguntzea baino»

**NAROA EIZMENDI
MALEN GURRUTXAGA
BOLUNTARIOAK**

J. M. Zizurkil

Zizurkilgo boluntario taldean izena eman dute Malen Gurrutxaga Navasek (Zizurkil, 2003) eta Naroa Eizmendi Etxekoneak (Zizurkil, 1999). Hemendik aurrera sortzen diren beharrei erantzuteko prest agertu dira.

Nola eman zenuten izena boluntario taldean?

Malen Gurrutxaga. Niri WhatsApp talde baten bitartez iritsi zitzaidan mezua, herrian boluntario talde bat osatzeko asmoa zegoela esanez. Lagunen artean komentatu eta izena eman genuen.

Naroa Eizmendi. Udaletxetik ohar bat iritsi zitzaidan bolunta-

rio talde bat osatzeko asmoa zegoela esanez eta izena ematea erabaki nuen.

Zein lanetan aritu zarete azkeneko aste hauetan?

M. G. Behin izena eman ondoren deitu zidaten esanez ondoko ezkaratzean emakume heldu bat bizi zela eta laguntza behar zuela zaborra kalera jaisteko. Berekin harremanetan jarri ginen eta zaborra jaisteko beharra izan duen bakoitzean etxera deitu eta laguntzera joan natzai, beti ere, segurtasun distantziak mantenduz, musuko eta eskularruekin. Atzo hots egin zidan pertsona horrek eta esan zidan kalera jaisten hasita dagoela eta ez duela laguntza gehiago beharko.

N. E. Niri musukoak banatzeko hots egin zidaten, herriko auzoetan zehar adineko pertsonen artean banatu genituen. 20 bat lagun bildu ginen eta binaka antolatu ginen auzo guztietara iristeko. Esan beharra dago, koitoizko oihalekin maskarak egiten jardun dutela Uliazpi zentroan eta hango kudeatzaileak udalari oihala eskaini ziola krisialdi hasieran. Udala herriko jostun batzuekin bildu eta 50 musuko egin zituzten aurreneko asteetan. Batez ere, etxeko langileei eta udal brigadakoen artean banatu ziren haiek, momentu hartan gutxi zeudelako.

M. G. Gu ere, musukoak banatu aurretik liburutegian bildu ginen sei bat lagun. Adineko bakoitzarentzat sei musuko eta azalpenak emanez ohar bat prestatu genituen eta gutunazaletan sartu.

Jendearen esker ona jaso al duzue?

N. E. Oso-oso eskertuta agertzen zen jendea gurekin. Musukoen-gatik zerbait ordaindu behar ote zen galdetzen ziguten eta ezetz esaten genien, udalaren bitartez banatzen ari ginela. Nik esango nuke, lehentasunezko tratua hori jasotzea asko eskertu zutela adineko pertsonen.

Zuek biak gazteak zarete, baina zein da boluntario taldean parte hartu dutenen profila?

M. G. Nik uste dut, musukoak banatzera joan ginenean, behintzat, oso adin ezberdinetakoak ginela. Denetariko jendea bildu da. Batzuk aurrez ezagunak genituen, baina herrian bertan bizi den beste jende bat ezagutzeko aukera ere izan dugu.

Konfinamenduak iraun duen garaian zuen egitekoekin jarraitu ahal izan duzue?

N. E. Bai, ni adibidez, unibertsitatean nabil eta online aritu naiz lanean. Presentzialki ez gara, printzipioz, iraila arte bueltatuko. Hala ere, beti hartu daiteke tarte bat herrian laguntzeko.

Aurrera begira behar berriak sortuko balira laguntzeko prest egongo zinatekete?

M. G. Nik boluntario taldean segitzeko asmoa dut eta norbaitek beharra badu eta deitzen badu, prest gaude laguntzeko.

N. E. Ni ere berdin, prest nago beharra dagoen bakoitzean laguntzeko. Gure herria den aldetik, zer gutxiago ahal dugun neurrian laguntzea baino. Inportantea iruditzen zait herritartasun hori agertzea.



Herriko txoko ezberdinetan aurki daitezke kartelak, eta bakoitzak ekimen desberdin bat jasotzen du. ATARIA

QR kode bidezko egitasmoa abiatu du Ibarako Gaztezulok

Haur, gazte eta helduentzat QR kodeak dituzten kartelak jarri dituzte herrian zehar; horien bitartez, jolasak, erronkak, tailerrak eta galdetegiak egin ahalko dira

Irati Saizar Artola Ibarra

Ibarako Gaztezulok egitasmo berri bat jarri du martxan: *Etxe-tik Kalera*. Neurriak arintzen doazen heinean, Ibarako haur, nerabe eta gazteak kalean elkartzen hasiak dira, haien aisia herriko espazio desberdinetan igaroz. Hori aprobetxatuz, QR kodeak dituzten kartel batzuk jarri dituzte herriko gunen ezberdinetan. Eta horien bitartez, jolasak, tailerrak, galdetegiak eta beraien iritziak jasotzeko formularioak zabaldu dituzte.

Itxialdiak iraun duen asteetan zehar, baliabide telematikoen bidez martxan jarritako egitasmoek «arrakasta nabarmena»

izan dute. Neurriak arintzearekin batera, ordea, egitasmo telematikoa «indarra galtzen» joan direla azaldu dute Gaztezulok. Oraindik esku hartze zuzenik egin ezin denez, beste aukera batzuk diseinatu behar izan dituzte. Egitasmo berri horrekin, «herriarrek zuzenean konektatuta egotea» lortu nahi dute. Horrela, Gaztezulok eskaintzen duen zerbitzuarekin jarraitzen ahalbidetzen diete, egoera berri-
ra egokituz.

QR kode horiek kolore ezberdinetan ipini dituzte, eta adin tarte bakoitzari kolore bana jarri diote: haurrek kolore gorria izango dute, gazteek berdea eta helduek urdina. Kodeak darama-

tzaten kartek horiek, haur, nerabe, gazte eta familiak elkartzen diren herriko espazio ezberdinetan kokatu dituzte. Besteak beste, haurrentzat, San Inazio, plazan, EH plazan, Goxobin; gazteentzat, Azkueko ping pongean, Goxobin, San Inazio eta Arantzazuko aman; eta helduentzat, Zubiaurren, Eguzkiloren, Covi-ranen eta Azkue okindegian.

Astebete igaro ostean, QR kode berriak jarriko dituzte, horrela, astero eduki berriak jasotzeko aukera izango da.

Egitasmo hau, udako eskaintza hasi bitartean garatzea aurrerakusi dute, betiere egoeraren arabera moldatu daitekeela jakitun.

Lorez jantzitako leku ederrenaren bila hasiko dira

Leiho, balkoi, terraza eta lorategi lehiaketarako izen ematea zabaldu dute Berastegin; ekainaren 30era arte izango da

I.S.A. Berastegi

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Berastegiko Udaleko kultur batzordeak, hamabigarrenez antolatu du Leiho, balkoi eta terraza lehiaketa, eta hamaikagarrenez Lorategi lehiaketa. Horrela, etxe inguruak mimoz apaintzen dituzten horiek sariak jasotzeko aukera izango dute.

Parte hartzeko aurrez izena eman beharko da honako bideen bitartez: 943 683 000 zenbakira deituta edo udaletxeko harrera bulegoan bertan izena emanda. Honako datuak eman beharko dira: parte hartzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta zein lehiaketetara apuntatu nahi duen. Izena emateko azken eguna ekainaren 30a izango da.

Leiho, balkoi, terraza eta lorategiak uztailean baloratuko dituzte batzordekideek zein loreen zaintzan teknikaria den batek. Etxez etxe ibiliko dira puntuazio egiten, eta honakoak hartuko dituzte kontuan: kolorea, landareen aniztasuna, konbinaketa, estetika eta txukuntasuna. Parte hartzaileei aldeztu aurretik jakinaraziko zaie zein egunetan joango diren. Eta egun horretan, argazkiak ere aterako dituzte, ondoren udalaren webgunean ikusgai jartzeko.

Guztira, sei sari banatuko dituzte: modalitate bakoitzean hiru. Lehiaketa egin ahal izateko, gutxienez 5 parte hartzaile beharko direla azaldu du kultura batzordeak. Aurrerago jakinaraziko dute sari banaketa noiz egingo duten.

TAO zerbitzua martxan da atzotik Ibarako kaleetan

IBARRA // Alarma egoeratik TAO zerbitzua bertan behera utzi zuten Ibarra, baina berriro ere martxan jarri dute. Atzo izan zen lehen eguna. Deseskalatzeko faseak aurrera doazela kontuan hartuta eta herritarren mugikortasunean egon diren aldaketak ikusita, Ibarako Udalak erabaki hori hartu du.

Hainbat zerbitzu presentzial martxan jarri dituzte Lizartzan

LIZARTZA // Pausoak aurrera ematen hasi nahi du Lizartzako Udalak, eta atzotik zabalik dira udal bulegoetako aurrez aurreko zerbitzua eta liburutegia. Gimnasia, joste tailerra, pilates eta hipopresiboaren ikastaroekin ere aurrez aurre hastea erabaki dute, mantendu beharreko segurtasun neurriekin.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Milagros Arratibel Baztarrika

(Jose Iztuetaren alarguna)
- Goian bego -

Heldu da garaia eskertzeko eman diguzun guztia
irribarre ederrenak esnatu dituzu gugan zurekin berriz elkartuko gara maite zaitugulako, gure bihotzetan.

Agurrik ez, gero arte amona
Bilobak: Eider eta Josu, Ane eta Arkaitz, Aitor eta Rose, Miren, Asier eta Julene, Josu; birlobak: Izar, Peru, Amets eta Uxue.

LEGAZPI, 2020ko ekainaren 3an



Luis Lakunza Urresti

Ekainaren 2an hil zen 92 urte zituela.

Oroitzeko lore
laztan bihotzeko
itzali den gure
Luisentzako

Emaztea, seme-alabak eta bilobak

Elizkizuna asteazkena, hilak 3, arratsaldeko 6etan
Santa Maria parrokia elizan.

TOLOSA, 2020ko ekainaren 3a

Herri Kirolestatik...

Aizkora, zalantzaz beterik



JOXE ANJEL SARASOLA

Aizkorak ere ez du bizi egoera samurrik egunotan. Jon Irazu aizkolarari zizurkildarrak horrela konfirmatu digu Ataria Irratiko *Desafioa* herri kirol saioan: «Aizkora, beste kirol guztiak bezala, nahiko ilun dago. Herriko festa guztiak-eta bertan behera geratu dira. Hortxe ikusten genituen lau sosa gastuei aurre egiteko, herri kirol erakustaldiak-eta eginez, eta momentuz ez da ezer izango, eta ez dakit zer gertatuko den».

Gipuzkoako bigarren mailan dago Irazu, eta federaziotik azaldu diotenez, bigarren mailako txapelketa ez da egingo. Maiztean izan ohi dira kanporaketak, eta ekaina bukaeran edo uztaile hasieran izaten da finala. Izan ere, txapelketak egiteko herriko festetako babesak bilatzen da, eta horrelakorik ez dagoenez, bertan behera geratu da. Usurbilgo festetan izan ohi da azken urteotan txapelketa hori. Lehen mailakoa, berriz, Mendaron egin ohi da, baina hori ere bertan behera geratu da.

Aizkolarientzat herriko festek bere garrantzia izaten dute. «Esan daiteke herri askotan izaten dela herri kirol emanaldi bat. Entrenatzeko aitzakia izaten da, baita aurkariekin konparatzeko ere; gauza askotarako balio izaten du, eta aurten hori ere ez da izango. Aizkorarako ilusiorik gabe gaude», esan du Irazuk. Aizkora aritzeak gastu handia du, eta herri eta auzoko festei esker, maila mantentzeko aukera gehiago ditu, gero maila hori txapelketetan erakusteko.

Euskadiko Federazioari dago kionez, ez dutela oraindik ezer garbi dio Irazuk. «Txapelketek gastu handia dute, egurrak asko kostatzen dira, eta aurrera ateratzeko lagungarria izaten da udalek ematen duten laguntza. Eta Euskadikotik esan zuten ez zekitela ezer. Gu ere hortxe gaude, ez dakigula dena emanda entrenatzen hasi edo zer egin behar du-

gun. Txapelketa jokatzeko egurra eta aizkora erostean, hiru-lau mila euro joateko ez da ezer ere behar». Ez badute entrenatzen eta gero txapelketa antolatzen bada, mailarik ez du izango aizkolaria. Baina entrenatzen badu dena emanda, eta gero txapelketarik ez bada, galerak pila-tuko ditu.


OFIZIO HANDIKO KIROLA

Gastu handia eskatzeaz gain, aizkorak prestatze lan handia eskatzen du, ofizio handiko kirola da. «Pilotari bat geldirik badago, gero kantzara ateratzen denean, ikusten zaio erritmo falta, kantzax pixka bat galduta dagoela. Aizkolariei ere berdina pasatzen zaigu», esan du Irazuk. Asko eskatzen duen kirola da aizkora, eta gainera inguruko norbaiten laguntza ere behar izaten da prestaketa lanak egiteko.

Gogoan izan behar da Euskal Herriko Txapelketan lehen mailan dagoela aurtengoan Irazu, iaz bigarren mailakoa irabazi eta gero. Eta lehen mailan lehiatzeak txapelketan lan handiagoa egin behar dela esan nahi du. Hori bai, erakustaldiak-eta egiteko aukera gehiago izaten dituzte, baina horixe dute faltan garai honetan. Eta entrenamendu guztiak etxean egin behar badiutuzte eta ezer ez herriko festetan, egurraren gastu hori oraindik eta handiagoa da. Azkenean, neurritz kanpoko zenbakiak ateratzen dira.

Azken bi urteetan neguan atseden dezente egin du Irazuk, eta konfinamendu garaian fisikoki pixka bat mantendu dela dio, bizikletarekin edo mendira joanez. «Ezin duzu dena erabat utzi», zehaztu du. Eta orain du erabakiak hartzeko unea: «Egur pixka bat dut eta oraintxe dut garaia entrenatzen hasteko edo ez. Serio entrenatzeko egurra ekarri behar da, dagoeneko gastu dezentekoa egin beharko nuke».

Hainbeste denboran aritu gabe egonda, aizkolaria batek saioan egoteko, lan txukuna egingo duenaren garantia emateko, gutxienez hiru hilabete beharko dituela kalkulatu du Irazuk. «Bi hilabete geldirik egon eta orain hasiz gero, babekin hasten zara, gogordurekin... Hiru hilabete gutxienez behar dituzu. Eta hiru hilabete horiek ondo entre-



Jon Irazu, enbor gainean, eta Unai Otaegi, orain bi urteko San Isidro Egunean, Zizurkilen. I.G.L.

natuta, lesiorik-eta izan gabe». Urriaren bueltan izaten da Euskal Herriko finala. «Ikusten bada dena hobetzen doala, eta ez dela berrerortzerik izango, posible izan daiteke. Baina jendeak beldurra du berriz ere etorriko ote den udazken aldera aurretik izan dugun egoera, eta hor dago gako».

APUSTUAK, AUKERA?

Zenbait aizkolarirekin hitz egin du eta bere antzera daudela dio, zalantza handiekin. «Orain egoera zerbait hobetzen ari da, baina udazkenean ez dakigu ze jarrera hartuko duen, mantenduko den ala ez», esan du Irazuk. «Ikusten dugu futbola eta beste kirol batzuk ateak itxita jokatuko direla. Ez dut uste herri kirolak gaitasu-

na duenik ateak itxita aurrera ateratzeko».

Apustuak izan daitezke aukera bat aizkorarentzat? Jenderik gabe apustuak egitea zaila dela dio Irazuk, eta, gainera, eskatzen duen prestaketa nabarmendu du: «Txapelketan ez baduzu aurrera egiten, ez da ezer gertatzen, egun txarra duzulako edo zorte txarra izan daiteke. Apustua ez baduzu irabazten, galtzailea zela, eta niri pertsonalki askoz serioagoa iruditzen zait». Horrez gain, data bat jarri, lan handia egin prest egoteko, eta egoera okertuz gero apustua egiteko aukerarik ez izateak, zailtasuna gehitzen dio horrelako ekitaldi bat antolatzeari.

Herri kirolak eta diru laguntzak ezkontzea gaur egun ez da

erraza. Irazuri ez zaio burutik pasa ere egin laguntzarik jaso ahal izatea. «Herri kirolak hemengo kulturaren parte dira. Baina uste dut kultura hori asko galtzen ari dela», esan du, gainera, Irazuk. «Lehen saiatzen zen ekitaldia oso polita jartzen, maila bereko aizkolariekin. Orain herri askotan egiteagatik egiten da, eta beste toki batzuetan egiteari utzi zaio».

Ikusten denez, aurrera begira zer egoera izango den ez jakiteak sortzen du zalantza handiena aizkolarengan. Eta ezjakintasun horrekin denek dituzte arazoak, bai maila apalekoek eta baita goi mailan aritzen direnek ere. Ea egoerak hobera egiten duen eta aurtengo denboralditik zerbait salbatu daitekeen.



ASTEAZKENA, 2020KO EKAINAK 3
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 3

ATARIA IRRATIA

09:00-12:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearekin, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa (Zutani elkarteko kideak) eta bertsolaritzari buruzko solasaldia.
14:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

11:00. Elkarrizkettap (Kultur langileen erradiografia digitala)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Amets yoga estudioa
23:00. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro nahasia izango dugu. Goizean goizetik zerruan hodeiak nagusituko dira eta hodei hauek euria ere utziko digute. Goizean zaparrada tartekatua izango dira. Arratsaldean aldiz, zaparradak ugariagoak eta mardulagoak izango dira, ekaitzak jotzea baztertu gabe. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du, bizi eta tenperatura jaitsi egingo da. Hala, eguneko maximoa 22 eta 23 graduren artekoa izango da.



Bihar. Giro euritsu eta freskoa izango dugu. Fronte batek eta ipar-mendebaldeko haizeak euri giroa ekarriko digute. Euri zaparradak egun osoz emango dira, baina indartsuenak eguneko erdiko orduetan izango dira. Haizeak ipar-mendebaldetik bizi joko du eta tenperatura maximoak nabarmen behera egingo du. Eguneko erdiko orduetan izango ditugu hauek, eta gehienez 18 eta 19 gradu artera iritsiko da tenperatura.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Enplegu zerbitzua hasi da jendaurrekoarekin

Tolosaldea Garatzeneko enplegu saila aurrez aurrekoarekin hasi zen astelehenean; banaka egingo da, eta aurrez hitzordua hartuta

Erredakzioa Tolosaldea

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Zentroak astelehenean berrekin zion aurrez aurreko arreta zerbitzuari. 09:00etatik 15:00etara bitarteko arreta eskainiko du, aurrerantzean, baina horretarako beharrezkoa izango da aurrez hitzordua eskatzea. Bi modutara egin ahal dela azaldu dute, 943 65 45 01 edo 617 85 46 84 telefono zenbakietara deituta, edo lan@tolosaldea.eus helbide elektronikora idatzita.

Osasun eta segurtasun neurriak jarraituz, hitzordura bakar-bakar joan beharko dela ere adierazi dute enplegu zerbitzutik. Apatta industriagunean kokaturiko Lehiberri eraikinaren barruan uneoro distantzia mantendu beharko da, eta norbere babeserako maskara jantzi beharko da. «Neurri horiekin erabiltzaile eta langileen segurtasuna eta osasuna babestu nahi ditugu», azaldu dute.

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Zentroa, Lanbideren zen-



Apatta industriagunean dago Lehiberri zentroa. I. GACIA

tro kolaboratzaile eta Kolokazio Agentzia ere bada, eta zenbait kasutarako arreta birtuala ere eskaintzen du; lanerako orientazioa eta informazioa, lan-eskaintzen izen-emateak, eta langile nahiz langabeentzat enplegu programetan parte hartzeko jarraibideak, telefonoz ere egiteko aukera ematen du. Horretarako

ere hitzordua eskatu beharko da, aurrez aipatutako telefono zenbakietara deituta edo helbide elektronikora idatzita. Era berean, Tolosaldea Garatzenetik gogoratu dute azken asteetan osasun krisiaren ondorioz jendaurreko zerbitzua etenda izan badute ere, telematikoki lanean jarraitu dutela.

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarrizketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea

Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

- Whatsapp bidez: **687 410 033**
- Abestiak eskaini, zoriondu, albisteen berri eman, proposamenak egin, kexak....

ESKUALDEKO
EUSKARAZKO IRRATIA

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideek

12€
23€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez